Beitu
Berriak

# BADATOZ ISIDRO DEUNAREN JAIAK!

9. eta 10. orriak.

## Vivienda

El Ayuntamiento destina 20.000 euros en ayudas al alquiler para jóvenes

Pág.4

## Udalekuak

Abierta la preinscripción hasta el 18 de mayo

Pág.8

## EUSKARALDIA

Peio Kortazar:
*"Denok batu behar gara euskara gehiago pizteko"*

6. eta 7.orriak



MAIATZA 2025

DERIO
UDALA / AYUNTAMIENTO

N.224

## Renovada la solera del frontón exterior

11 El Ayuntamiento ha llevado a cabo trabajos de
9 mejora en el frontón exterior para **solucionar los**
3 **problemas de acumulación de agua y deterioro**
ODS **de la solera.** Hasta ahora, la superficie se llenaba de charcos cuando llovía, dificultando su uso seguro y acelerando su desgaste.

Para solucionar esta situación, se ha retirado la capa existente de asfalto y se ha aplicado una **nueva capa de hormigón armado con fibras.** Además, se ha dado una pequeña pendiente a la superficie para dirigir el agua hacia el exterior y evitar futuras acumulaciones. Finalmente, **la solera se ha pulido** para asegurar un acabado de calidad. Estas obras han supuesto una **inversión de más de 48.000 euros.**

Desde el Ayuntamiento se sigue apostando por el mantenimiento y la mejora de las instalaciones públicas, con el objetivo de ofrecer a la ciudadanía espacios de calidad para el deporte y el ocio.



## Uribe Parkeko txakurguneari ateak ipini zaizkio, segurtasuna hobetzeko

15 Udalak berrantolatu eta hobetu egin du Uribe
11 Parkeko txakurgunea, bertako erabilera segurua-
3 goa izan dadin. Orain arte, guneak bi sarrera zi-
ODS tuen baina ez zuen ate sistemarik, eta hala, zenbaitetan txakurrek ihes egiten zuten.

Egoera hori konpontzeko, eta bertako **erabiltzaileen eskaerei erantzunez, ateak jarri dira bi sarreretan,** eta horrela txakurgunea erabat itxita geratu daiteke, **animalien eta inguruan dabiltzan pertsonen segurtasuna bermatuz** eta **erabiltzaileen lasaitasuna areagotuz.**

Halaber, animalien ongizatearekiko eta bizikidetza arduratsuarekiko konpromisoa berretsiz, **Udalak txakurgune berri bat egokituko du Errementariñe inguruan,** txakurrek jolasteko espazio gehiago izan ditzaten baldintza egokietan.



# Taileri kaleko espaloia berritu da segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko



11 | 10 | 3 | ODS

Udalak konpondu egin du Taileri kaleko espaloia, **Nekazaritza Eskolako biribilgunetik Baserri Antzokira doan tartean,** 250 metro inguru. Lan hauen helburua izan da espaloia seguruago eta erabilgarriago bihurtzea, denboraren poderioz eta zuhaitzen sustraien eraginez hondatuta baitzegoen: baldosa batzuk hondoratuta zeuden eta beste batzuk altxatuta, oinezkoentzako arrisku izan zitekeena.

Horrez gain, kendu diren zuhaitzak ingurunera hobeto egokitzen diren beste batzuengatik ordezkatu dira. Jarduketaren guztizko aurrekontua **39.632 eurokoa** izan da, BEZa barne. Hobekuntza horien bidez, irisgarritasunaren aldeko aurrerapausua eman da paseatzeko asko erabiltzen den eremu batean, **Parke Teknologikorako ohiko pasabidea** izateaz gain.

# Aparcapatinetes en la Herri Ikastetxea: una propuesta del alumnado que impulsa la movilidad sostenible

17 | 13 | 11 | 4 | ODS

A propuesta del propio alumnado, el Ayuntamiento ha instalado un nuevo aparcapatinetes en la Herri Ikastetxea con capacidad para unas **25 plazas.** La iniciativa, surgida de las inquietudes del entorno escolar, responde al compromiso del consistorio por escuchar a la comunidad educativa y f**omentar hábitos responsables** desde edades tempranas.

Además de facilitar un punto acondicionado para dejar los patinetes, esta medida busca **reforzar el uso de medios de transporte sostenibles** en los trayectos escolares, contribuyendo así a una movilidad más limpia y a un **entorno escolar mejor organizado.**



# El Ayuntamiento destina 20.000 euros en ayudas al alquiler para jóvenes

El acceso a la vivienda se ha convertido en uno de los grandes retos del país y en una de las principales preocupaciones de la ciudadanía, especialmente de la juventud. Consciente de ello, el Ayuntamiento ha vuelto a activar una línea de ayudas al alquiler para jóvenes, reforzando su compromiso con la emancipación y el bienestar de las personas jóvenes de Derio.

En esta nueva convocatoria, se destina una partida de 20.000 euros para apoyar a **jóvenes de entre 18 y 35 años.** Las ayudas, que se concederán en función de los ingresos, podrán cubrir hasta el 50% del alquiler o un máximo de 300 euros mensuales. **El plazo de solicitud es del 1 de mayo hasta el 30 de septiembre de 2025.**

En la edición anterior, **todas las personas que cumplieron los requisitos establecidos en las bases recibieron la ayuda, entre 2.250 y 3.600 euros.** Además, **estas ayudas son compatibles con las que otorga el Gobierno Vasco,** ampliando así las oportunidades para quienes quieren iniciar un proyecto de vida independiente.

Las solicitudes se pueden gestionar de forma telemática, a través del enlace **www.derio.eus,** o de forma presencial, en el Servicio de Atención a la Ciudadanía GERTUAN. Toda la información y bases completas están disponibles en la nueva web municipal.

Además, cabe recordar que el Ayuntamiento ha trabajado para que en Aldekone puedan construirse próximamente **88 viviendas en régimen de alquiler social,** ampliando así la oferta de vivienda asequible en Derio. Cuando se inicie el proceso de adjudicación, se informará a través de los canales oficiales del Ayuntamiento.



# DERIO LAGUNKOIA ¡Queremos contar contigo!

Desde el Ayuntamiento queremos dar un paso importante hacia un **pueblo más amigable,** accesible y pensado para todas las personas, especialmente para quienes tenéis más de 60 años y habéis contribuido tanto al Derio que conocemos hoy.

Por eso, estamos poniendo en marcha un **proceso participativo** que busca mejorar la calidad de vida de las personas mayores y, con ello, también el bienestar del conjunto de la ciudadanía. Un proceso basado en la **escucha, el diálogo y la colaboración,** dentro de una iniciativa más amplia que ya están desarrollando muchos municipios como el nuestro.

Creemos firmemente que vuestras **ideas, propuestas y experiencias** son esenciales para avanzar hacia un Derio más cercano, más humano y más **amigable,** donde todas las generaciones puedan vivir mejor.

Por ello, en los próximos días, las y los derioztarras recibiréis en vuestras casas una carta informando sobre las vías de participación y se indicará una fecha de presentación del proyecto. Será un primer encuentro para compartir en qué consiste esta iniciativa, conversar sobre el futuro de nuestro pueblo y empezar juntas y juntos este nuevo camino.

**Tu voz importa. ¿Nos acompañas?**

# Aurrekontu parte-hartzaileetako proiektuak errealitate bihurtzen ari dira Derion

Derion, herritarrek proposatzen eta bozkatzen dutena benetan gauzatzen da. Horren adibide argia dira azken hilabeteotan aurrera eramaten ari diren bi proiektu:

**Aire zabalean kirola egiteko baliabideen hobekuntza,** 2025eko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan boto gehien jaso zuen proposamena izan zen. Hala, kanpoko kirol-instalazioak hobetuko dira, kiroldegiaren atzekaldean kokatutako kalistenia gunea handitu egingo da. Eta honez gain, Ganben kalistenia gune berri bat instalatu da.

**Kantxa estalien alboetako itxiera,** berriz, 2024ko prozesuko proposamen irabazlea izan zen, eta dagoeneko lanean ari da Udala ekimen hori gauzatzeko. Frontoiaren ondoan dauden kirol-gune horien erabilera eta erosotasuna hobetzea du helburu.

11 16 17



Ekimen bakoitzerako **120.000 euro** inguru bideratu dira, aurrekontu parte-hartzaileetarako esleitutako partidak. Bi kasuetan argi geratu da herritarrek ohitura osasungarriak sustatzea eta espazio irekiak lehenestea dutela helburu.

*"Eskerrak ematen dizkiet Derioko herritar guztiei, beren parte hartzeko konpromisoagatik eta beren aletxoa jartzeagatik. Elkarrekin eraikitzen ari garen udalerria herritarren benetako premiekin bat dator, eta horrek asko pozten gaitu"*

**Esther Apraiz,** alkatea.








# "Denok batu behar gara euskara gehiago pizteko"

ODS 4 | 10 | 11 | 16

**Peio Kortazar Euskaraldiari begira Txorierriko Mankomunitateko koordinatzaile eta dinamizatzaile lanetan dabil. Euskararen erabilera aktibatzeko mugimendu sozialaren eta eskualdeko udalen arteko bitartekaritzan ematen ditu egunak. Euskaraldiaren helburu nagusia hizkuntza-ohituren inertziak astindu eta herritarrek euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea da. Maiatzaren 15etik 25era garatuko da, baina gaiak bere mamia du.**

**Aurten ere Euskaraldia bueltan da. Zeintzuk dira aurtengo helburu nagusiak? Txorierrin erronka berezirik?**

Herritarren hizkuntza-ohiturak aldatzea eta euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea da helburu nagusietako bat. Horretarako, ahobizi eta belarriprest rolen bidez, hizkuntza-praktikak aktibatu nahi dira, horretaz gain ere, entitateen eta herritarren inplikazioa areagotzea, eta horrela euskararen erabilera aktibatzeko mugimendua elikatu. Eta Txorierriren kasuan, herri bakoitzak bere aurkezpen eta ekitaldiak egingo ditu.

### Mankomunitate mailan egiten duzu lan. Koordinazio lan horrek zer-nolako erronkak eta aukerak dakartza?

Aukera nagusiena elkarlana da, herri desberdinen arteko lan egiteko erraztasuna ekartzen duelako, bai eta materialak guztion artean partekatzea ere. Erronken aldetik, nabarmenenak ordutegien bateratzea eta behar den pertsonal kopurua biltzea dira.

### Herritarrak protagonista dira Euskaraldian. Zer-nolako erantzuna jasotzen ari zarete oraingoz? Zenbat ekitaldi antolatu dira eskualdean eta, zehatzago, Derion?

Herritarren aldetik, batzorde kide kopuruak ugariak izaten ohi dira, baina ia denak elkartetako kideak dira, ez dira bolondres asko agertu. Eta izen emateak poliki poliki igotzen doaz, baina oraindik askoz gehiago behar dira. Ekitaldien aldetik, Derion bi izen emateko mahai presentzial jarri dira, Kultur Birikan eta kale artean. Azken honetan ere talo tailerra eta txapa tailerra ipini ziren. Eta maiatzak 5ean txapa banaketarako mahaia jarriko da Kultur Birikan eta maiatzak 10ean kantxetan egongo den ekitaldiarekin batuz, beste mahai bat jarriko da txapak hartzeko.

### Ahobizi eta Belarriprest roletatik harago, ekimen edo berrikuntzarik edizio honetara begira?

Aurtengo berrikuntzetako bat "Euskaraldia Hika" ekimena da, parte-hartzaileek izena ematerakoan adierazi ahal izango dute hitanoa sustatzeko prest dauden ala ez, eta hauei txapetan identifikagarri berezi bat jarriko zaie. Bestalde, euskararen aktibatzaileen gida liburua ere atera da, mugimendua sortzeko eta ekintzak antolatzeko laguntza ematen duena. Eta beste urte batzuetan bezala ariguneak sustatu dira, eta bueltatu egin da 'Hamaikakoa'.

### Hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzeko bi hiru gomendio nagusi ematen dizkiguzu?

Lehen gomendioa, lehen hitza euskaraz izatea da, berdin da nor den, lehen hitza euskaraz hasi, euskaraz egiteko aukerak handitzen dira lehen hitza zuk euskaraz egiten baduzu. Bigarrena, eta niretzako garrantzitsuena, ez lotsatzea eta ez etsitzea da, zure ahalegina asko baloratuko da. Eta azkena zure ingurua euskaraz aktibatu, hau zailena izan ahal da, baina, adibidez, telefonoaren eta sare sozialen hizkuntza euskara jarri, Netflix edo Spotify-n euskarazko edukia bilatu, eta ingurukoekin euskarazko elkarrizketak sustatu.

### Eta amaitzeko, zein da euskararen egoera Txorierrin? Nola ikusten duzu etorkizuna?

Euskararen egoera Txorierrin ez da ona, beherakadan doa eta zerbait egin behar dugu honi buelta emateko. Etorkizuna ezin da inoiz jakin, baina, ez badugu aktibazioarekin eta lanarekin jarraitzen argi dago etorkizuna euskararentzat oso iluna izango dela. Horregatik denok batu behar gara euskara gehiago pizteko.

## Euskararen aldeko giroa bizi-bizi Derion!

Euskaraldia, euskararen erabilera aktibatzeko mugimendua, maiatzaren 15etik 25era garatuko da aurten. Derion, 'Ahobizi' ala 'Belarriprest' izateko izen-emate mahaiak garaiz eta gogoz antolatu dira, bizilagunak mugiarazteko helburuarekin. Honela, martxoaren 31n izen-emate mahaia jarri zen Kultur Birikan, eta apirilaren 4an jaialdi bat ospatu zen izen-emateak sustatzeko. Talo tailerra eta Euskaraldiko txapak egiteko tailerra izan ziren egitarauan, eta jende ugari gerturatu zen.

Datozen asteetan ekintza gehiago egingo dira: maiatzaren 5ean txapa banaketak jarraituko du eta maiatzaren 10ean, Derioko San Isidro jaien atarian, hainbat elkarteekin batera feria alternatiboa antolatuko da, Euskaraldiko txapen banaketarekin. Azkenik, maiatzaren 15ean, Euskaraldia hasiko den egunean, argazki markoak sortzeko tailer bat egingo da. Ekitaldi guzti hauek antolatzeko Udalarekin elkarlanean aritu dira Marikobaso, Tximintx komunitatea, Egin Egaz Elkartea eta Laino Mendi Dantza Taldea, besteak beste.



# Abierta la preinscripción para los udalekus hasta el 18 de mayo

El Ayuntamiento ha puesto en marcha una nueva edición de las colonias de verano para ofrecer a **niñas y niños nacidos entre 2013 y 2020** una alternativa lúdica y educativa durante sus vacaciones. Las actividades programadas persiguen el doble objetivo de **fomentar la conciliación familiar y laboral** y ofrecer **espacios seguros de juego, socialización y aprendizaje** a las y los menores.

Como viene siendo habitual en las últimas ediciones, las tandas de julio incluirán salidas matutinas en grupo, actividades en inglés, piscina, talleres o juegos, entre otras diversiones, mientras que las de agosto presentarán una oferta temática, con semanas dedicadas a disciplinas como el arte (Artez Blai), la tecnología (Tecnology Team), la ciencia (Playing with Science), la magia y ciencia (Derio Wizard Lab) y el deporte y salud (Kirolfit).

Cada familia podrá elegir un máximo de tres semanas en cada bloque. El horario general de las colonias será de 9:00 a 14:00, con media hora de flexibilidad a la entrada (de 8:30 a 9:00) y a la salida (de 14:00 a 14:30). El plazo de preinscripciones está abierto hasta el **18 de mayo** en la web municipal **https://labur.eus/DerioUdalekuak2025**.

Las plazas son limitadas y se adjudicarán por sorteo.
Las listas de personas admitidas se comunicarán vía email.

**JULIO.**

- Del 23 al 27 de junio
- Del 30 de junio al 4 de julio
- Del 7 al 11 de julio
- Del 14 al 18 de julio
- Del 21 al 24 de julio (semana de 4 días, el 25 es festivo)
- Del 28 de julio al 1 de agosto (semana de 4 días, el 31 es festivo)

**AGOSTO.**

- Del 4 al 8 de agosto - ARTEZ BLAI
- Del 11 al 14 de agosto - TECNOLOGY TEAM (semana de 4 días, el 15 es festivo)
- Del 18 al 22 de agosto - PLAYING WITH SCIENCE
- Del 25 al 29 de agosto - DERIO WIZARD LAB
- Del 1 al 5 de septiembre - KIROLFIT



El precio de las semanas de **5 días es de 40 euros** y de **32 euros el de las semanas de 4 días** (descuentos a partir del segundo menor inscrito). **El servicio de comedor** se habilitará de 14:00 a 16:00 horas, siempre y cuando se confirmen 20 o más solicitudes para la misma semana. En el caso de apuntarse al servicio de comedor, al precio del udaleku habría que sumar el **precio del comedor,** que en el caso de las semanas de 5 días será de **61,30 euros más** y en el de las semanas de 4 días, de **49,04 euros más.**

# ISIDRO DEUNA 2025

## MAIATZAK 10-25



### 10 Zapatua *Sábado*

- 9:00 — **Frontenis Txapelketa** / *Campeonato de frontenis*
- 11:00-15:00 — **Herri Azoka** / *Feria popular*
- 19:00 — **Kalejira KUKUDANTZA, PIPERDUN, LAINOMENDI**

### 11 Domeka *Domingo*

- 11:00-14:00 — **Kirol jardunaldiak** / *Feria del deporte*
- 18:00 — **Euskal dantzak LAINOMENDIrekin**

### 15 Eguena *Jueves*

- 10:30-12:30 — **Umeentzako tailerrak** / *Talleres infantiles*
- 11:00-13:00 / 17:00-19:00 — **Puzgarriak eta umeentzako jolasak** / *Hinchables y juegos infantiles*
- 12:00 — **Meza** / *Misa*
- 12:30-13:30 — **Marrazki lehiaketa** / *Concurso de dibujo*
- 17:00-19:00 — **Disko festa**
- 18:00 — **Marrazki leihaketaren sari-banaketa** / *Reparto de premios del concurso de dibujos*
- 19:00 — **Poteoa**
- 19:30 — **Kontzertua** / *Concierto:* **Dúo Boleros**

### 16 Barikua *Viernes*

- 18:30 — **Herri Kalejira** / *Bajada popular*
  Marabiyak Sound System
- 19:00 — **Pregoia eta txitxiburduntzia**
- 22:30 — **Kontzertuak**
  MIXERABLIAK
  LEIHOTIKAN
  BENGO
  DJ HMNDK ETXERA

### 17 Zapatua *Sábado*

- 12:00 — **XAIBOR diskofesta** (Sollube kalean)
- 12:00 — **Paella txapelketa** / *Concurso de paella*
- 15:00 — **Herri bazkaria** / *Comida Popular*
- 16:30 — **ODEI FERNÁNDEZ - Bakarrizketa** / *Monólogo*
- 17:30 — **Paella txapelketaren sari-banaketa** / *Entrega de premios del Concurso de Paella*
- 18:00 — **Txitxarrillo**
- 19:00 — **Kuadrilla txapelketa - Poteoa**
- 19:30 — **IPAR-ALDE abesbatza**
- 19:30-21:30 — **Musika-guneak herrian zehar** / *DJs por el pueblo*
  *Pakearen enparantza*
  *Urkiola aparkalekua*
  *Sollube kalea*
  *Besaide plaza*
- 22:30 — **Kontzertuak**
  MARMIE TAKON
  LEHIAN ERROMERIA
  DJ VIKTOR KORDOBA

### 18 Domeka *Domingo*

- 10:00-14:00 — **XXVIII. Elikagai eta eskulangintza Azoka** / *XXVIII. Feria de alimentación y artesanía*
- 17:00 — **"Erremontari herriz herri" jaialdia** / *Festival "Erremontari herriz herri"*
- 18:00 — **PIPERDUN eta KUKUDANTZA dantza erakustaldia** / *Exhibición de baile*
- 19:00 — **Txokolatada**
- 20:00 — **Jai amaiera** / *Fin de fiestas*

### 25 Domeka *Domingo*

- 08:00-09:00 — **XXXVII. Herri ibilaldia** / *XXXVII. Marcha Popular*

#### Lekua *Lugar*

- Herriko plaza
- Kantxa estaliak / Canchas cubiertas - Txosnagunea
- Kultur Birika
- Polikiroldegia
- Frontoia / Frontón
- Isidro Deuna Eliza / Iglesia San Isidro
- Nagusien Etxea

* Euria bada ekitaldiak frontoian edo kantxa estalietan / *En caso de lluvia en el frontón o en las canchas cubiertas*

# DERIOKO JAIAK



Derioko elkarte eta talde askoren elkarlanean
En colaboración con asociaciones y grupos de Derio

DERIO Jai Batzordea

DERIO

Antolakuntzak egitaraua aldatzeko eskubidea izango du
La organización se reserva el derecho de modificar el programa

# Derioko Jai-Batzordearen agurra

16 | 11 | 10 | 3 | ODS

Derioko Isidro Deuna Jaiak aurreko urteko formatua mantenduko du. Hau da, asteburu bakar batean izan ordez, bi asteburutan ospatuko ditugu: lehen asteburua maiatzaren 10 eta 11koa izango da, eta herriko elkarte eta taldeekin ekimen desberdinak antolatu ditugu; eta bigarren asteburua, 15tik 18rakoa, "ohiko" jai-asteburua izango da, herri-bazkari eta kontzertuekin, besteak beste. Tartean herriko jai eguna egongo da, maiatzak 15, eta ume eta gazteei zuzendutako egitaraua izango dugu.

**Maiatzaren 10n,** zapatuan, HERRI-AZOKA egingo da kantxa estalietan 11:00etatik 15:00etara. Bertan, herriko elkarte eta taldeen erakusketak, tailerrak, artisau azoka eta taloa izango dugu, dena HIRUGA folklore taldearen musikaz girotuta. Goiz honetan, EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA - PAI BITARTEAN, AMPA TXIKI, GURE SEÑEAK, HASTEZN ELKARTEA, EUSKARALDIKO BATZORDEA eta MARIKOBASO ESPAZIOAK stand informatiboak antolatuko dituzte, MARRAZTEN TALDEAk taldearen historia grafiko laburra, marrazki pertsonalak eta San Isidroren historiari buruzko hurbilpen marraztua egingo du, MARIKOBASO ESPAZIOAK Derioko euskararen erabilerari buruzko erakusketa egingo du, HASZTEN ELKARTEAK gurpildun aulkien zirkuitu bat antolatuko du, DATeko kideak (Derio Argazki Taldea) egunean zehar argazkiak ateratzen egongo dira eta TXIMINTX EUSKARA ELKARTEAk taloak egingo dituzte. Horrez gain, Derioko eta inguruko artisau eta eskulangileen azoka bat ere egongo da, guztira 22 postu inguru. Goiz berean, frontenis txapelketa jokatuko da 9:00etatik aurrera frontoian. Jai Batzordeak txosna zabalduko du.

Arratsaldean, 19:00etatik aurrera eta elizako plazatik hasita, PIPERDUN, KUKUDANTZA eta LAINOMENDI dantza elkarteen eskutik kalejira dantzagarria izango dugu kaleetan zehar eta pintxo potea Derioko tabernetan.

Domekan, **maiatzak 11,** kirol-elkarte desberdinek antolatutako KIROL-AZOKA izango dugu. 11:00etatik 14:00etara polikiroldegiko pistan POZGARRI FUTBOL SALA, MIRAGARRI DANCE, CD DERIO, TXORIERRI BASKETLAND SK, TAEKWONDO DOYAN eta DERIO KICK-BOXING joku desberdinak eta ikastaroak antolatuko dituzte. Kirol-azoka hau herritar denok parte hartzeko pentsatuta dago, eta herrian urte osoan zehar egiten diren kirol desberninak ezagutzeko aukera paregabea izango da. Goiz honetan ere txosna zabalik izango dugu.

Lehenengo asteburu hau LAINOMENDI-ren dantza erakustaldiarekin bukatuko dugu arratsaldeko 18:00etan herriko plazan (euria bada, frontoian).

# Concurso de paellas

11 | 3 | ODS

Como el año pasado, este año vamos a tener un concurso de paellas el 18 de mayo, sábado, dentro de la comida popular.

La inscripción para el concurso se hará el mismo día desde las 12:00 hasta las 14:00, y la presentación de las mismas de 14:00 a 14:30. La Comida Popular empezará a las 15:00, y no será obligatorio participar en el concurso de paellas para venir a la comida. Todo el pueblo está invitado a venir con su comida y cubiertos de casa. La reserva de mesa y silla costará 2€, y los tickets estarán a la venta en los bares SUGOI BYRON y ADARVE del 2 al 11 de mayo, ambos incluidos. El aforo no es ilimitado, por lo tanto, reservad sitio cuanto antes.

La sobremesa correrá a cargo de la monologuista ODEI FERNANDEZ, y después repartiremos los premios del concurso de paellas (1. premio 150€ + 2 botellas de txakoli, 2. premio 100€ y 2 botellas de txakoli, 3. premio 50€ + 2 botellas de txakoli). A la tarde, a partir de las 19:00, dará comienzo un concurso de cuadrillas organizado por un grupo de jóvenes del pueblo, desde el txosnagune pasando por los bares.

# DERIO

# GUREA ARETOA

## MAIATZA / MAYO

PREZIOAK - EZ ESTREINALDIAK: 3€, ERDI ESTREINALDIAK: 4€, ESTREINALDIAK: 5€
PRECIOS - NO ESTRENO: 3€, SEMIESTRENO: 4€, ESTRENO: 5€

- AZKEN ORDUKO ALDAKETEI LOTUTAKO PROGRAMAZIOA -
- PROGRAMACIÓN SUJETA A POSIBLES CAMBIOS DE ÚLTIMA HORA -
SARRERAK ONLINE: WWW.KUTXABANK.ES

### "Minecraft filma bat" (euskaraz)




**NR7**
**100'**

**Larunbata 3 Sábado:**
18:00etan
**Igandea 4 Domingo:**
17:00etan

### "Sorda"




**TP**
**99'**

**Larunbata 10 Sábado:**
20:00etan
**Igandea 11 Domingo:**
19:00etan

### "Por todo lo alto"




**NR12**
**103'**

**Larunbata 3 Sábado:**
20:00etan
**Igandea 4 Domingo:**
19:00etan

### "Misión Panda en África"




**TP**
**89'**

**Larunbata 17 Sábado:**
18:00etan
**Igandea 18 Domingo:**
17:00etan

### "Diplodocus"




**TP**
**94'**

**Larunbata 10 Sábado:**
18:00etan
**Igandea 11 Domingo:**
17:00etan

### "Faisaien irla"




**NR12**
**99'**

**Larunbata 17 Sábado:**
20:00etan
**Igandea 18 Domingo:**
19:00etan

# Agenda

MAIATZA - MAYO

***OHARRA:**
Hilaren hasieran udal aldizkaria eta agenda kulturala posta elektronikoz jaso nahi duen herritar orok **kultura@derio.eus** helbidera mezu elektroniko bat bidaliz eska dezake.

***AVISO:**
Todo aquel vecino o vecina que desee recibir, a primeros de mes, vía correo electrónico la revista municipal junto con la agenda cultural, puede solicitarlo enviando un email a **kultura@derio.eus**

## UNTZA MENDI TALDEA

**Maiatzak 4 de mayo:**
Bizkargi, 566 m. Joan eta etorri, 11,9 km, Autzagane. Bizkaia. Irteera: 8:00. Nagusien Etxea.

**Maiatzak 11 de mayo:**
1. Derio – Zornotza. Lineala, 21 Km, Derio. Bizkaia. Irteera: 7:30. Nagusien Etxea.
2. Derio – Larrabetzu. Lineala, 13,7 Km, Derio. Bizkaia. Irteera 7:30. Nagusien Etxea.

**Maiatzak 18 de mayo:**
Legazpi – Arantzazu. Lineala, 15 km, Legazpi, Gipuzkoa. Irteera: 7:30. Nagusien Etxea. Derrigorrezko izen-ematea / Inscripción obligatoria.

**Maiatzak 25 de mayo:**
Derio Mendi Martxa, Derio. Bizkaia. Irteera: 8:00 / Umeen irteera: 9:00. Herriko Plaza.
Info: www.untzamendi.biz

## TXORIERRI PEDALAK EMATEN / GRUPO CICLOTURISTA DERIO

**Maiatzak 4 de mayo:**
Ereño. 97 km. Irteera 8:30.

**Maiatzak 11 de mayo:**
Castro (Puerto). 95km. Irteera: 8:30.

**Maiatzak 18 de mayo:**
Olaeta. 120km. Irteera 8:30.

**Maiatzak 25 de mayo:**
Munitibar (Plaza) 110 km.
Irteera: 8:30.

## FIESTAS SAN ISIDRO JAIAK 2025

**Maiatzak 10-11 de mayo:**
Eventos organizados por asociaciones y grupos culturales y deportivos.

**Maiatzak 15-17-18-25 de mayo**

## UDALEKUAK 2025 / COLONIAS DE VERANO

**Izena emateko epea zabalik maiatzaren 18ra arte / Abierto el plazo de inscripción hasta el 18 de mayo. En www.derio.eus**

## XIX. DALMACIO LANGARIKA BTT (Encuentro Escolar)

**Ekainak 1 de junio:**
La salida se llevará a cabo desde la calle Almazene, a las 10:30.
Organizado por: Gela Pedagogikoa.

## APERTURA DE LAS AULAS DE ESTUDIO DE KULTUR BIRIKA DURANTE LOS FINES DE SEMANA

**Maiatzak – Mayo**
**10-11, 17-18 eta 24-25-31**

**Ekainak – Junio**
**1-7-8 eta 14-15**

**Ordutegia / Horario:**
Larunbatetan / Sábados: 16:00-20:00
Igandetan / Domingos: 9:00-14:00

## MUROS DE BIZKAIA – BIZKAIKO INFERNUA ZIKLOTURISTA MARTXA

**Maiatzak 24 de mayo:**
Martxa zikloturista. Irteera: 8:15. Derrigorrezko izen-ematea - Inscripción obligatoria: https://murosdebizkaia.com

## DERIOko IPAR-ALDE ABESBATZA

**Maiatzak 10 de mayo:**
Parroquia de "LA SAGRADA FAMILIA", Orduña, 19:00.

**Maiatzak 17 de mayo:**
Parroquia de "SAN ISIDRO",
Derio, 19:30.

**Maiatzak 31 de mayo:**
"IGLESIA DE LOS PADRES TRINITARIOS", Algorta, 20:15.

## ANTZERKIA / TEATRO

**Maiatzak 24-25 de mayo:**
"Mis queridos vecinos" Antzerki lana / Teatro. Grupo de Teatro Sutondoan. Gurea Aretoa, 19:00.

## OFICINA DE DOCUMENTACIÓN MÓVIL PARA RENOVAR DNI Y/O PASAPORTE

**Ekainak 5 de junio:**
Derio acogerá la Oficina de Documentación Móvil destinada a la expedición y renovación del Documento Nacional de Identidad (DNI) y el pasaporte. El acceso será únicamente mediante cita previa, que debe solicitarse antes del 30 de mayo en Kultur Birika (Tel: 944659714).

**Orain aldizkaria oso-osorik euskaraz edo gazteleraz irakurri dezakezu!**
**¡Ahora puedes consultar el Beitu íntegramente en euskera o castellano!**

Euskaraz:

En castellano:

DERIO
UDALA / AYUNTAMIENTO